



'IZARREN ARGIA'REN AURRESTREINALDIA

Bihar izango da Tolosako Leidorren 19:30ean; Erik Probanza aktorea eta Eduardo Barinaga produktorea izango dira »6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-10-09

VIII. URTEA 2.095. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

OINATZ BENGOETXEA PILOTARIA

«Aurten konfiantza handiarekin eta joko oso onarekin ari naiz»

LEITZA Pilotari gaztea Abel Barriola herrikidearen kontra ariko da gaur Nitro Torneoko finalean

LAU T'ERDIKOA Udako jaialdietan bikain ibili eta gero Lau t'erdiko Txapelketan ere berdin jokatzeari espero du »4-5



I. GOROSTARZU

Maila mantentzeko erronka du Bide Bide Ibizak

TOLOSA Denboraldia bikain hasi eta gero gaur, Lizuan.com taldea izango dute aurkari »2

Garikoitz Ibarluzea aske geldituko da

IBARRA Londresen ez dute onartu Espainiako Auzitegi Nazionalaren euroagindua »3

JUAN PABLO ZUBELZU 'TXUBEL' LAUBURUKO ENTRENATZAILEA

«laz bezala, lehen lau postuetan sailkatzea da gure helburua»

IBARRA Denboraldiko laugarren jardunaldia jokatu dute gaur Kirol Sport taldearen aurka »7



Herritarrekin iritziak partekatzen

TOLOSA ● Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko Departamentuaren diputatua Tolosako Kultur Etxean izan zen atzo, Gipuzkoa Eraikitzen ekimenaren aitzakia. Bertan bildu ziren dozena inguru herritarrei azken hiru urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri eman zien. Ondoren, herritarrek euren iritzi eta ekarpenak partekatzeko aukera izan zuten diputatuarekin. Gipuzkoa Eraikitzen ekimena «Aldundiaren kudeaketa herritarrekin partekatzeko eta aztertzeko helburuarekin» sortu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. HITZA

Laburrak

Ziklomotorrak aztertzeko aukera izango da Tolosan

GIZARTEA ● Azaroaren 4ean eta 5ean ziklomotorrak aztertzeko estazio mugikorra Tolosara etorriko da. Hain zuzen ere, San Esteban auzoko ferialekuan egingo dute. Txanda hartu nahi duenak 943 62 63 00 telefono zenbakira deitu beharko du.

Aparteko Osoko Bilkura egingo dute hilaren 14ean

GIZARTEA ● Aparteko Osoko Bilkura egingo dute udaletxeko batzar aretoan, datorren ostegunean, hilaren 14ean, 19:30ean. Oroimen historikoari buruzko mozioa izango da batzarrean Udaltzatik eztabaidatuko duena.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baserría edo borda.** Baserrí edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

LANA

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuek deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

■ **Etxe garbitzailea.** Neska ardurasua lan bila dabil etxeko lanak egiteko. Interesatuek deitu 629 10 29 38 telefono zenbakira.

■ **Harrera-lanak.** Bidaniako hotel batean gauetarako harrera-lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek bidali curriculumua

Alpinok Valderejora irteera antolatuko da hilaren 17rako

MENDIA ● Alpino Uzturre elkarteak datorren igandeko, urriaren 17rako, mendi irteera antolatuko du. Oraingoan Valderejo parke naturalean izango da. Txangoa Lalastan hasi eta Herran herrian bukatuko da. Arrayuelas (1.128 m.), Reencuenco (1.240 m.), Vallegrull (1.228 m.) eta Santa Ana (1.042 m.) mendiak igoko dituzte. Autobusaren irteera San Frantziskotik izango da, 07:00etan. 6 ordu eta erdiko iraupena izango da txangoak. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta ez bazkideek 13 euro. Izen emateko 943 65 27 89 zenbakira deitu edo alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatzi beharko da.

info@irartejauregia.com helbide elektronikora.

SALGAI

■ **Plantetako enkofratua Ulma sistema.** Karrerak, zertxak, puntalak, postetako txapak, tableroak saltzen dira. Modu onean. Deitu 667 4188 75 telefono zenbakira.

BESTERIK

■ **Txakurkumeak opari.** 3 hilabeteko arratoi txakurkume emea, hilabeteko 2 arratoi txakurkume eta 3 hilabeteko 4 arratoi-ehiztari nahasketako txakurkume oparitzen ditut. Interesatuek deitu 645 70 68 21 telefono zenbakira.



Bide Bide Ibiza saskibalo taldeko jokalariek. HITZA

Denboraldia bikain hasi du Bide Bide Ibiza taldeak

Kirola » Mikeldiren aurkako lehen partida irabazi zuten tolosarrek; gaur, Lizuan.com-en aurka jokatu dute Azpeitian.

INIGO TERRADILLOS

Beti da garrantzitsua denboraldi bat garaipenarekin hastea eta gehiago etxean jokatzeko bada. Takeko nagusien taldeak, Bide Bide Ibizak, hasiera ezin hobea izan

duela esan daiteke, beraz, pasa den asteburuan 61-54ko emaitzarekin Mikeldi taldeari irabazi ostean.

Baja batzuk izan arren, taldeak aurpegia erakutsi zuen partidako une guztietan. Hasieratik abantaila lortu zuten, gainera, tolosarrek, eta amaierara arte mantentzea lortu zuten. Taldeko arduradunek azaltzen dutenez, «gazteek esperientzia aldetik salto bat eman dute, eta partida zailtan jokatzeko gai direla erakutsi dute».

Aurrendenboraldi ona burutu du

taldeak, eta «gogotsu» zeuden denboraldi berriari ekiteko. Garaipen honen ondoren, hirugarren dira tolosarrek sailkapenean. Viajes Marfil da liderra eta Fundacion Baskonia dago bigarren postuan.

Gaur jokatu dute nazional mailako ligako bigarren partida, Lizuan.com azpeitiarren aurka. Azpeitian izango da, 19:00etan. Partida «zaila» espero dute, «baina etxetik kanpo ere irabazten hasi nahi badugu, gaur izango dugu horretarako aukera».

«Maila mantentzea da gure aurtengo erronka nagusia»

JON GONZALEZ » Entrenatzailea

I. TERRADILLOS

Denboraldia ederki hasi du Takek lehenengo partidari garaipena erdietsi baitzuen pasa den astean. Jon Gonzalez entrenatzaileak azaltzen duenez, «bide horretatik jarraitzea eta maila mantentzea dira aurtengo erronka nagusiak».

Hori bai, ez dute baztertzen sailkapeneko goiko postuetara begira jarri eta igoera fasean sartzea.

Mikeldiren aurkako partida irabazi egin zutenen. Garaipen garrantzitsua?

Bai. Lehenengo partida irabazteak konfiantza emango digu denboraldi berriari aurre egiteko.

Pasa den urteko talde bera al da, edo al daketak daude?

Taldea ia bere horretan mantentzen dela esan daiteke. Jokalari berri bakarra dugu.

Iazko denboraldian pixka bat sufritu zutenen, baina azkenean lortu zutenen maila mantentzea.

Bai. Bigarren fasea egoera nahiko kaxkarrean ailegatu ginen, sailkapeneko azken postuan, hain zuzen. Sailkapeneko azken lau taldeak mailaz jeisten direla kontuan hartuta gure egoera ez zen batere ona. Baina, zortzi partida jarraian irabazi genituen, eta ondorioz, egoerari buelta ematea lortu genuen, azkenean maila mantendu ahal izan genuelarik.

Zergatik izan zen hain txarra lehenengo fasea?

Jokalari berriak, gazteak eta nagusien liga ezagutzen ez zutenak zeuden taldean eta taldera egokitzea pixka bat kostatu egin zitzaigun. Dena den, denbora kontuan izan zen, izan ere, bigarren itzulian maila hobea erakutsi genuen.

Aurtengo denboraldiari begira, nola ikusten duzu taldea?

Pasa den urtekoa baino aurrendenboraldi gogorragoa egin dugu aurren, erabat prestatuak diren gure taldeak. Horretaz gain, udako

atsedenaldiaren ostean, jokalariek iaz baino zainduago eta prestatuago etorri dira. Beraz, aurtengo taldea egokituango dagoela kontuan hartuta gauzak hobeto joatea espero dugu.

Ze erronka dituzu aurtengo denboraldian?

Maila mantentzea da lehendabiziko helburua, baina, noski, igoera fasean sailkatzea lortzen badugu ez dugu ezetz esango. Horretarako, etxeko partidetan behintzat sendo mantentzea funtsezkoa da guretzat.

Zein da ligako talderik gogorrena?

Baskonia dela esango nuke. Maila handia duten jokalariz osatua dago.

Jarraitzaileak alboan izatea ere garrantzitsua izango da, ezta?

Bai, oso garrantzitsua da, eta esker-tu beharrean gaude ematen diguten babesarengatik. Harrobiko jokalariek gurtzaileak izaten dira gure partidak ikustera, eta eurekin batera lagunak eta gurasoak ere izaten dira. Horiez gain, geroz eta gehiago dira elkartearrekin harremanik izan ez, baina saskibaloia ategin dutelako gure partidak ikustera jotzen direnak. Oso giro polita sortzen da partidetan.





Barçaren jarraitzaileak gurean

TOLOSA ● Barcelona FC taldeko jarraitzaileen Munduko Kongresua ospatzen ari da egun hauetan Donostian. Ekimen honen baitan atzo Tolosan egon ziren munduko hainbat

peñetako 800 ordezkari. Lehenik Peña Blaugrana Tolosarraren eskutik Tolosa ezagutu zuten eta ondoren Tolosa Gourmeten eskutik Zerkausian afaria egin zuten. A. IMAZ



Berazubiko Jaiak asteburuan

TOLOSA ● Berazubiko Jaiak atzo hasi ziren txupinazoa eta bertso-poteoarekin. Gaur besteak beste, 12:00etan Tortilla patata lehiaketa eta ardo dastaketa egingo dute.

14:00etan Paella Txapelketaren txanda izango da eta 16:00etarako Mus Txapelketa antolatuko dute. Berazubiko Jaiak astearte- an amaituko dira. A. IMAZ

Garikoitz Ibarluzea ibartarra ez dute Espainiaratuko eta aske geldituko da

Politika » Espainiako Auzitegi Nazionalaren euroagindua ez dute onartu Londresen, bigarren aldiz.

ASIER IMAZ

Espainiako Auzitegi Nazionalaren eskariari eta fiskaltzarenari bigarren aldiz esan dio ezetz Londresko epaile batek. Ondorioz, Garikoitz Ibarluzea ibartarra ez dute

Espainiaratuko. Bere aurkako euroagindua atzera botatzen duten bigarren aldia da, eta atzokoan, gainera, Ibarluzea aske uzteko agindua eman zuen epaileak.

Garikoitz Ibarluzearen abokatuak epaia jakin orduko sendiarekin hitz egin zuen: «Irabazi dugu eta aske geldituko da» esateko.

Hala eta guztiz ere, fiskaltzak helegitea jartzeko azken aukera dauka Epaitegi Gorenean. Ibartarraren abokatuaren esanetan ordea, «zaila izango da, hirugarren

ezezkoa jasotzeko arrisku handia baitute».

Aurrekariak

Garikoitz Ibarluzea Londresen atxilotu zuen poliziak 2010eko martxoaren 13an, lanean zegoela.

Abuztuaren 12an, Espainiako Auzitegi Nazionalak eskatutako euroagindua ez zuen onartu Londresko Epaileen Gorteak eta baldintzapean aske uztea erabaki zuen. Fiskaltzak ordea, ordugutxira, helegitea jarri zuen eta West-

minsterreko epaitegiak espetxera bidali zuen Ibarluzea, fidantzapeko askatasuna bertan behera utziaz. Atzo arratsaldean ordea, euroagindua ez zuen onartu epaileak eta Garikoitz Ibarluzea aske gelditzeko azen.

Ibartarra 2006tik bilatze eta atxilotze agindupean zegoen, kale erasoekin lotutako epaiketa batera ez zelako agertu. Izan ere, 2002an Guardia Zibilak eskualdean bede-

ratzi lagun atxilotu zituen, 1999 eta 2002 artean hainbat kale erasotan parte hartu izana egotzita. Inkomunikazio garaia amaitu ostean, haietako bat aske gelditu zen kargurik gabe. Beste zortzi lagunak espetxera bidali zituen Espainiako Auzitegi Nazionalako Fernando Andreu epaileak, tartean Garikoitz Ibarluzea aurkitzen zen.

Lau hilabete espetxean igaro ondoren, 2003ko otsailean, Guillermo Ruiz Polanco epaileak aske utzi zituen zortzi espetxeratuak, bermepean.

Epaiketa azkenik, 2006ko urrian egin zitzaion eta Ibarluzea ez zen agertu bertara.

Z Zurea da hitza info

JUAN KARLOS BESANCEREN LAGUNAK

Lehenik eta behin, gure elkartzasun osoa adierazi nahi diegu Karlos Besance eta bere familia guztiari. Eutsi goiari!!!

Astebete pasa da Karlos atxilotu zutenetik, eta oraindik lur jota gaudede; eta lurra gehiago jo dugu, egunkarrietan bere atxiloaldiko testigantza irakurtzean. Bortizki torturatua izan da, bai fisikoki eta baita mentalki ere.

Nola da posible, oraindik ere jendeak etabereziki politika egiten dutela dioten horiek, ez dagoela torturarik esatea? Ez al da argi gertatzen ari? Ze froga gehiago nahi edo behar dituzte?

Erakundeak irailaren 5ean ekin-tza armaturik ez egitea erabaki zutenetik, hilabete joan da, baina ikusi da hemen herriaren alde la-



Juan Karlos Besance. HITZA

nean ari den oro, kriminalizatu nahi dutela: atxilotu, torturatu eta espetxeratu!!!

Torturari Stop!!! Aski dela ozen

esan behar dugu!!! Eutsi goiari Karlos!!!

Hirekingeudek!!!

2010eko urriaren 7a



Ibartarrek behin baino gehiagotan eskatu dute gaztearen askatasuna. A. IMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eskualdekoak Aiako I. Giza Proba Txapelketan

Herri kirolak » Bihar izango da hitzordua 18:00etatik aurrera herriko probalekuan; sarrerak 10 euro balio du.

ERREDAKZIOA

Herri kirol saio ugari izango dira bihar herri askotan eta eskualdekoahorietakobatzuetan ere izango dira.

Anjel Arrospide leaburuarra, esaterako, Urrezko Aizkolari Txapeladunen finalean izango da bihar 12:00etatik aurrera Pobeseko (Araba) Babarrun Pintoaren Fes-



Parte-hartzaileek 900 kiloko harriari egin beharko diote tira. HITZA

taren baitan, baina honekin batera izango dira beste probabatzuk ere.

I. Aiako Giza Proba Txapelketa

Nahiz eta ez izan Euskadiko Herri Kirol Federazioak antolatutako txapelketa, Aiako talde batek babestutako giza proba ikusi ahal izango da bihar.

I. Aiako Giza Proba Txapelketa Aiako probalekuan izango da 18:00etatik aurrera eta parte-hartzaileek 900 kiloko harriari tiraka, ahalik eta metro gehien egin beharko dituzte 20 minutuko txandean.

Lau talde ariko dira eta horietako bat Tolosaldeko gazteek osatutako dute, Aiztondo taldea, hain zuten. Beste hiru taldeak Orioko Heldu, Usurbil eta Urretxu izango dira.

Parte hartzeko zenbait baldintza ere bete beharko dira. Taldebaikoitza zortzi kidez osaturik egongo da, eta asko jota, 680 kilo pisatu ahal izango ditu talde bakoitzak. Pisu hori gainditzen duen kilo bakoitzeko, bi kiloko gainzama eramango du harriak.

Kirolarien pisatzea proba hasi baino ordu erdi bat lehenago egingo dute. Proba ikusteko 10 euro ordaindu beharko dira.

Bihar izango da 'Izarren argia' filmaren aurrestreinaldia

Tolosa » Filman parte hartu duen Erik Probanza aktorea eta Eduardo Barinaga produktorea izango dira emanaldian.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko zein kanpoko zinezaileek aukera bikaina izango dute Tolosan bihar. Izan ere, *Izarren argia* filmaren aurrestreinaldia izango da. Pelikula hilaren 22an estreinatuko dute zinema zirkuitu komertzialean, baina aipatu bezala, bihar Tolosaldeko Leidorrean ikusteko aukera ere izango da 19:30etik aurrera. Jatorrizko bertsoan eskainiko dute, hau da, euskaraz eta gaztelarazko azpititulua izango ditu.

Probanza eta Goenaga

Filman eskualdeko bi aktoreren lanak ikusteko aukera izango da,



Erik Probanza eta Barbara Goenagak hartzen dute parte filman. HITZA

gainera, Barbara Goenaga alkizarra eta Erik Probanza tolosarra. Probanza bera Leidorren izango da bihar Eduardo Barinaga produktorearekin batera.

Filmak 1938. urteko Saturrarango emakumeen kartzelaren pasarteak biltzen ditu. Espainiako Gerra Zibila da eta Victoria errepubli-

kar baten alarguna, ahizpa eta semearekin batera sartzen da kartzelara.

Gertutik ezagutuko du Gerra Zibilaren atalik ilunena. Victoria eta gainerako emakume presoak erregimen frankistak ezarritako zentzugabekeriaren lekuko zuzenak izango dira.

Euskara ikastaroa eta haur txokoa abian dira

Amezketak » Sei lagunek eman dute izena euskara ikastaroetan eta bi haur hasi dira eskolaren haur txokoa.

miako irakasle bat joaten da eta berak ematen ditu bi ikastaroak. Iaz ere irakasle bera zegoen eta ikasleek hala eskatuta aurten ere berdinak jarraitzen du.

Haur txokoa, estreinakoz

Aurten hasi dira lehenengo aldiz eskolan haur txokoaren zerbitzua ematen. Bi haurrek eman dute izena bertan. Udalak aurreikusita zuten diru laguntza ematea zerbitzua martxan jartzeko. Zerbitzua-aren kostua hirugarren haurretik aurrera bere gain hartzen du. Bi haurrek izena eman dutenez, zerbitzua martxan jarri zedin Guraso Elkarteak bere gain hartu du haur baten kostua.

Amezketako eskola 09:30ean irekitzen da eta haur txokoaren zerbitzua 08:00etatik dago zabalik. Aurrerago familiaren batek izena eman nahi bada, edozein garritan jo dezake Guraso Elkartera horretarako.

ERREDAKZIOA

Bi egitasmo abian jarri dira aste honetan Amezketan. Alde batetik euskara ikastaroarena eta, bestetik, haur txokoa. Hirugarren urtea da martxan jartzen dela euskara ikastaroa. Aurten sei ikasle eman dute izena. Horietatik hiru EGA mailako ikastaroa egiten ari dira eta beste hiruak hastapeneko.

Satur Zabala zinegotziak azaltzen duenez, «Amezketako Udalak euskararengatik apustua egitea erabaki du eta horregatik antolatzen dugu euskara ikastaroa». Ikasleak ikasturtean zehar klaseen %80ra joaten badira, doan izaten dute ikastaroa. Elduairen akade-

H Hilberria

INAKI ARRIETA GARATE

Atzo hil zen, 71 urte zituela



Izar bat itzali da hermen lurra, beste bota niri, da zeru ederrean ta zu gelditzen zara gure bihotzean

Sendeeek maitasunez gogoaan zaitugu.

Hileta elizkizunak: GAUR LARUNBATA, arratsaldeko sei eta erdietan, Azeptiko SORZASUKO SEBASTIAN DEUNAREN paroki elizan. Alder aurretik mila esker.

Hilbidet: Bentatxo baserria (Lasao auzoa)
Oharra: Hilbela, 10:00-13:00 eta 16:00-17:00
Azeptiko Carmona Ehozketak Tanatorioan egongo da.
Gorpuzt laguntza bere familia artean egongo da.



AZEPTIAN,
2010eko urriaren
9an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

4-4koa eta gero, Lauburukoak garaipen berri baten bila doaz

Ibarra » Denboraldia emaitza oso onekin hasi dute Lauburukoak; bi garaipen eta berdinketa bat erdietsi dituzte oraingoz, eta laugarren postuan daude.

ERREDAKZIOA

Bi partida irabazi ostean hirugarrenak zurrar bazirudien ere, ez da horrela izan Lauburukoentzat. Denboraldiko hirugarren norgehiagoka jokatu zuten larunbatean, etxean, C.D. Atenea Ikusnet FS-ren aurka eta launako berdinketaren amaitu zuten jardunaldia.

Emozioz betetako partida izan zen Belabietan ikusi ahal izan zena. Ibarra, buelta eman be-

har izan zioten hasieratik beraien aurka zegoen markagailuari.

Dena den, alde egin zieten me-rezitako bi puntuek. Izan ere, izu-garrizko jokoa egin zuten bigarren zatian.

Bi taldeek abiadura eta indar handiarekin hasi zuten partida. Hala, ateen aurrean, biek izan zituzten golak sartzeko aukerak. Hori dela eta, nabarmentzekoa da bi atezainek egindako lan handia.

Gaur, Orkoien aurkari

Orkoien (Nafarroa) Kiroldegian dute hitzordua gaur arratsaldean Lauburukoak. 18:00etan hasiko da Kirol Sport eta ibartarren arteko partida.

Saillkapeneko zazpigarren postuan dira nafarrak, eskualdekoak baino puntu bat gutxiagorekin. Etorkizuneko bidea markatzeko, partida garrantzitsua izango da Lauburukoentzat.



Ibarrara etorriko da berriz Bengoa. e.e

Kamishibai ipuinak kontatuko ditu Ines Bengoak ostegunean

Ibarra » Hilaren 14an Benito Izagirre kultur etxean izango da Lizarrako ipuin kontalariaren saioa.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udal Liburutegiak antolatuta, datorren ostegunean, hilak 14, 18:00etan, Ibarrako Benito Izagirre Kultur Etxean ipuin kontalari saio bat izango da. Hau, Ines Bengoak zuzenduko du eta 3-5 urteko haurrei zuzenduta dago.

Japoniar erara kontatuta

Kamishibai ipuinak kontatuko ditu Ines Bengoak osteguneko saioan. Modu hau Japoniatik ekarritako teknika bat da. Ipuinak entzun eta ikusi egiten dira kontatzen diren bitartean irudiak erabiltzen baitira lagungarri gisa. «Japoniako ohitura zaharretik ekarritako ipuinak kontatzen ditut, baita duela gutxi sortutako istoriotxoak ere, non umeez kontaktetan parte hartzen baituten. Irudiek irudimenarekin bidaiatzea, jolastera, barre egitera eta parte hartzeragonek bidatzen gaituzte», dio Bengoak.

«Gaurko partidari ikusiko da taldeak non egon nahi duen eta noraino iritsi»

JUAN PABLO ZUBELZU 'TXUBEL' » Lauburuko entrenatzailea

Areto Futbola

Denboraldiko laugarren jardunaldia izango da gaurkoa Ibarraentzat; Kirol Sport dute aurkari.

ESTI EZEIZA

Iaz ederki amaitu zuten denboraldia Lauburukoak, eta aurten hasiera ez da gutxiagorako izan. Zenbait aldaketa egin dituzte sistemari nahiz taldean bertan. Hauetaz mintzatu da Juan Pablo Zubelzu Txubel taldeko entrenatzailea.

Denboraldia ongi hasi duzue, baina zaila izango dela aurrekusten duzue.

Bai, gustura gaude lehen emaitzekin, baina zaila izango da. 15 gara taldean eta 8 jaitsiko dira. Berregituraketa bat egin nahi dute. Lehen mailako bederatzi talde zeuden lehen, eta orain, lau izango dira penintsulakoa eta beste bat irletakoa. Ondorioz, Espainia lau zatitan banatuko dute.

Ondorioz, talde gehiagok izango dute jaisteko arriskua.

Bai, aurreko denboraldietan, hiru edo lau talde jaisten ziren, baina orain zazpi dekretuz jaitsiko dira. Gurean esaterako, hamabost gara taldean, eta horietatik zortzi jaitsiko dira mailaz.

Zeintzuk dira zuen helburuak hasi berri den denboraldiko?

Iaz bezala, lehenaldiko lau postuetan sailkatzea da gure helburua. Izan ere, mailaz igotzeaz-eta hizketan behin baino gehiagotan aritu gara, eta gure ustetan ez da komeni. Alde batetik bestera bidaia luzeak egin beharra daude, eta gastuak asko handitzen dira.

Nola ikusten duzu taldea, eta oro har, izandako hasiera?

Talde gaztea daukagu, baina oso ongi hasi gara. Iaz ere ongi amaitu genuen, eta bide beretik goaz orain.



NOELIA LATABURU

Taldean zenbait aldaketa izan dituzte aurten.

Alde batetik, Jon Ander Karrera gurekin hasi zen joan den denboraldian, baina lesio batengatik utzi egin beha izan zuen, eta jada ez du jarraitzen. Igor Zabalo atezainak ere taldea uztea erabaki du, beraz horiek dira baja nagusiak. Bestetik, zalantzak ditugu Arrospiderek, hau agian kanpora joango baita ikastera.

Baina, fitxaketa berriak ere badituzte.

Bai, alde batetik daude Lander Camio eta Jon Blanco jokalariek. Eta bestetik, jubeniletatik igo diren Egoitz Agirre eta Etxahun. Oso ongi hasi dira hauek.

Aldaketa horiek eragin handia al dute taldean?

Bajen kasuan, bi jokalarri gutxiagorekin jolastu edo ez, asko nabaritzen dugu. Maila oneko zazpi jokalarri behintzat izan beharra daukagu. Gainera, Unai Labakak ere

kuan mantentzea. Hala ere, teknika aldetik lana gaztetatik dago egina. Orain, taktikoki gauzak egin beharra daude. Mailaz igotzean, gauza txikiak, akatsak eragin handia izan dezakete, eta hauek landu beharra daude.

Zeintzuk dira Laubururen indarguneak.

Talde bezala jendeak badaki Zilarrezko mailan egon garela, eta horrekin geratzen dira. Baina bi urte oso txarrak igaro ditugu. Ekonomikoki zailtasun handiak izan ditugu, eta hala ere, egindako lanari esker, aurrera ateratzea lortu dugu. Beste taldeek diruarekin egin dutena, guk harrobiarekin lortu dugu.

DVDa: 15€ **Liburua: 25€**
Liburua + DVDa: 30€

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:
 943-30 43 45
 harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



21°
16°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** *Kortxea doktoarean abenturak eta musika tresnen fabrika* gaztetxoei zuzenduriko antzez-lana, 18:00etan Zerkausion.

Deialdiak

■ **Ibarra.** III. Galtzakomik Komiki Lehiaketa euskaraz. Gazte eta helduentzat, gai libre. Lanak Galtzaundi euskara taldean entregatu behar dira.

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Damini House of Culture konpainiaren *Dre* ikuskizuna Topic-en, 20:00etan, dantza garaikidea eta txotxongoak uztartuz.

Jaiak

■ **Tolosa.** Berazubiko jaiak: goizean patata tortila eta paella lehiaketa; arratsaldean mus txapelketa eta ume jolasak; gauean danborrada, disko festa, DJ txoznan eta goizaldean txokolatada.

Kultur Astea

■ **Tolosa.** San Esteban auzoan, 09:30ean Leitzarango jaitsiera txirrinruz haur eta helduentzat.

Musika

■ **Tolosa.** Kerobia musika taldearen emanaldia Bonberenean, 22:30ean.

Erakusketak

■ **Tolosa.** *Inestable* GKO Galeriarren eskutik ikusgai, Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** *Ertza* erakusketak GKO Galerian ikusgai.
■ **Tolosa.** 2011ko egutegiko Argazki Lehiaketan parte hartu dutenen erakusketak dago ikusgai Aranburu jauregian.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, 19:30ean *Karate Kid* gaztetxoentzako filma, eta 22:30ean, *Conoceras al hombre de tus sueños*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112..

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



A Agurrak



Zorionak!

Manex Esnaola. 5 urte.
Zorionak bereziki Naroa eta etxekoan partetik

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Poloniako ikasleekin elkartrukea

TOLOSA • Urtero bezala, Poloniako ikasleen bisita izan dute Hirukide ikastetxean, bertako bi ikastetxerekin duten elkartrukea dela-eta. Hain zuzen ere, Poznango Ursulinak eta Eskolapioen ikastetxeetako 56 neska-mutil eta bost arduradun izan dira Tolosan aste honetan. Iragan larunbatean iritsi ziren, eta asteburua famileekin igaro ostean, astelheanean Gasteizen izan zi-

ren; asteartean ikastetxean izan eta gero Donostiara joan ziren; asteazkenean Gernika eta Bilbo bisitatu zituzten; ostegunean Loiola, Arrikruz eta Arantzazu ezagutzeko aukera izan zuten; eta astearte honetan, Tolosako Eskolapioen eskola bisitatzearekin batera, bertako Goiko Irratian bi irratsaio grabatu zituzten Poloniako ikasleek ingelesez. HITZA

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 beheko • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	